



Arartekoaren 2015R-976-15 Ebazpena, 2015eko abenduaren 29koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari, zehazki Lanbide-euskal enplegu zerbitzuari, gomendatu genion mailegu bat ez ohiko diru-sarrera bezala ez kontatzea diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren kopurua kalkulatzeko eta jasotako prestazioen itzulera adosteko ebazpena berrikusteko.

Aurrekariak

1.-Arartekoak kexa bat izapidetzeko onartu zuen, kexagilearen titulartasuneko den diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren kopurua aldatzea hizpide zuena.

Lanbidek prestaziorako eskubidea berritu dio 2015eko otsailaren 22ko ebazpen baten bidez, baina prestazioaren kopurua aldatu du 139,08 eurotara murriztuz, Lanbidek kexagileak hemendik aurrera jaso behar duen kopurua dela uste duena. Era berean, 4.374,82€ itzultzeko erreklamatu dio 2015eko urriaren 9ko Lanbideren Zuzendari Orokorraren ebazpen baten bidez. Zor horren jatorria 2012ko ekainetik diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa oker jasotako prestazioak dira.

Gainera, Lanbidek pasa den irailetik ez dio kexagileari prestaziorik ematen, dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentatik aurretik oker jasotako prestazioak direla eta duen zorretik kentzen diolako.

70 urte dituen pertsona bat da. 366 euroko kotizazio gabeko pentsio bat kobratzen du eta 234,45 euroko alokairua ordaintzen du Bizigune etxebizitza hutsen programako etxebizitza batean.

Lanbidek kontuan izan du 10.745,83 euroko kreditu pertsonal bateko titularra dela, 2012ko ekainean egindakoa ibilgailu bat erosteko. Ibilgailua %79ko ezgaitasuna duen bere alabarena da. Finantza erakundeak eskatu zuen mailegua amaren izenean egoteko bere alabaren ezgaitasuna dela eta. Amak eskari hori maila formalean horrela egotea onartu zuen. Kexagileak egiaztatu du kreditua bere alabak ordaintzen duela, bere bankuko kontuan helbideratua baitu ordainagiria.

Berraztertze errekurtsoa aurkeztu du, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak mailegu pertsonala 20. artikuluko zenbagarriak diren diru-sarreraren artean kokatzen duelako.

2.-Arartekoak Lanbideri aurretik aipatutako gertaeren gaineko informazioa eskatu dio eta aldi berean hainbat gogoeta helarazi zaizkio, ez errepikatze aurrerago aipatuko ditugunak.

Lanbidek bere zuzendari orokorraren txosten baten bidez erantzun du 2015eko otsaileko soldata-orrian 139,08€ sartu zirela diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa, eguneratutako kopurua, zenbatutako diru-sarrerei zegokiena: Erretiratze pentsioa



eta 2012/6/1eko ez ohiko diru-sarrerari dagokion zatia. Berraztertzeke errekurtsoren ebazpenak gaineratu du: *“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretura argia dela honi buruz eta mailegu pertsonala 20. f artikuluko konputatu beharreko diru-sarreretan sartzen dela, eta ez dagoela 21. artikuluko kanporatuen artean. Ildo horretan, interpretazio-irizpideek ezartzen dute mailegua jada DBEren hartzaile direnean jasotzen baldin bada, konputatu beharra dagoela diru-sarrera atipiko modura”.*

Azkenik, honakoa adierazi du: *“Beraz, laburbildurik, adierazten da orain DBE gisa jasotzen duen zenbatekoa egun jasotzen dituen diru-sarrerak konputatu eta eguneratuta kalkulatu dela eta, bidegabeki kobratuta bezala kalkulatu diren sarrerak ere datu horiek eguneratuzetik sortu direla, 2013/01/01etik atzerako datuen berrikuspena egin ostean”.*

Gogoetak

1.-Kexagilea finantza erakundeak hala aholkatuta egin zuen kreditu baten titular gisa agertzen da, ezgaitasun egoeran dagoen bere alabak ibilgailu bat erosi ahal izateko. Egiaztatu du mailegua itzultzen ari dena bere alaba dela.

2.-Lanbidek interpretatu du mailegu bat ez ohiko diru-sarrera dela eta diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa jasotzen dutenek jasotzen dituzten diru-sarrerak zenbatzerakoan ezarritako aurreikuspenak ezarri dizkio. Zentzu honetan, kreditu bat ez ohiko diru-sarrera gisa ulertzen du. Beraz, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen 147/2010 Dekretuaren 20.1 artikulua araberak.

Lege aurreikuspen horren bigarren paragrafoan ez ohiko diru-sarrerak zerrendatu dira:

- a) *Edozein motatako kalte-ordainak.*
- b) *Elikagaien eta konpentsazio-pentsioen eskubide gisa jasotako atzerapenak, jaso behar ez zirela jasotako prestazioengatik itzuli behar ez diren zenbatekoan.*
- c) *Jaraunspenak eta legatuak.*
- d) *Dohaintzak.*
- e) *Ondarea saltzeagatik sortutako eta ohiko etxebizitzan inbertitu gabeko baliabideak.*

3.f) atalean ez ohiko diru-sarreratzat jotzen da *“Aurreko ataletan bildu ez diren gainerako diru-sarrerak, erregularrak ez direnak edo bizikidetz-unitateko edozein kidek ezohiko izaeraz lortu dituenak”.*

147/2010 Dekretuak **ez ditu** maileguak literalki **aipatzen**, honakoa baizik: *“gainerako diru-sarrerak”.* Horien artean pertsona prestazioaren onuraduna den bitartean sinatzen diren maileguak egoteak Lanbidek egiten duen interpretazioa da.

Hala ere, Arartekoa ez dago ados Lanbideren interpretazioarekin, zeinaren arabera kreditu batek ez duen herentzia, legatu, emate, pentsio, kalte-ordain edo ondarea saltzeagatik sortutako errekurtsoen izaera berdina. Mailegu kontratuaren izaera eta betebeharrak oso ezberdinak direla aitortu beharra dago.

3.-Mailegu kontratutzat jotzen da, Kode Zibilaren 1740. artikularen arabera: *“Mailegu-kontratuaren bidez, alderdi batek besteari ematen dio gauza suntsiezin bat, horrek epe zehatzean gauza erabil dezan, eta, ondoren, berari itzul diezaion; kontratu horri komodatu deritzo. Edo, bestela, dirua edo beste gauza suntsikorren bat eman daiteke, horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko baldintzapean; kasu horretan, kontratuak mailegu izenari eusten dio soil-soilik”.* Mailegu hutsa 1753. eta hurrengo artikuluetan erregulatzen da.

Kontratu honen ezaugarri nagusia itzultzeko betebeharra da, Kode Zibilaren 1753. artikulutik ondorioztatu daitekeen bezala: *“Norbaitek dirua edo beste gauza suntsikorren bat maileguan hartzen badu, horren gaineko jabetza eskuratzen du, eta betebeharra du, hartzekodunari horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko”.*

147/2010 Dekretuaren 20. artikulua aurreikusten dituen kasuak errekurtsu ekonomiko berriak jasotzen diren horiek dira, baina pentsio, legatu, herentzia edo salmenta baten produktua jasotzeak dakarren betebeharrak eta mailegu bat sinatzeak sortutako betebeharrak oso ezberdinak dira. Azken kasu honetan negozio juridikoa aurrekoen ezberdina da **hartzekodunari espezie eta kalitate berdinekoa den beste itzultzeko betebeharra existitzen delako**. Gainera ohikoena da maileguak interesak itzultzeko betebeharra sortzea.

Printzipala eta interesak itzultzeko betebeharra mailegu bat sinatzearen ezaugarri elementua da. Modu horretan, mailegu bat eskatzean, diruaren edo gauza suntsikorraren jabetza eskuratu arren, **hura itzultzeko betebeharra ere hartzen dela argi eduki behar da**

Laburbilduz, Arartekoaren ustez ezin da interpretatu mailegu bat sinatzea ez ohiko diru-sarrera denik 147/2010 Dekretuaren 20. artikularen arabera. Araudiak ez du zehazki aipatzen, Lanbide ezartzen ari den gehiegizko interpretazioa da mailegu kontratuaren berezko izaera kontuan hartzen ez duena. Gainera, kasu honetan kexagilearentzat ez dakar ibilgailu bat izatearen aukera, benetan bere alabaren onurarako formalitate hutsa zelako, ezgaitasun bat duena eta harengandik sortutako itzultzeko betebeharrak betetzen dituen.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honakoa da luzatzen den



GOMENDIOA

Arartekoak, beraz, Lanbideri gomendatu dio kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa jasotzen zuen bitartean sinatutako maileguaren kopurua ez ohiko diru-sarrera gisa zenbatzeari uzteko.

Lanbidek bere eskubidea den diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren kopurua murrizteko ebazpena eta oker jasotako prestazio gisa 4.374,82 euro kopurua itzultzeko betebeharra aitortu zuen ebazpena berrikusi beharko ditu.

